

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



## Gozatu ederra, sei egunetan jarraian

Apirilaren 28an hasi eta maiatzaren 3ra bitarte, harmonian igaro dira Santa Krutz jaiak / 4-13

### Mendeurreneko partida

Real Sociedad eta Euskalduna taldeko beteranoen partidak ikusmin handia piztu zuen / 16

Urnietako Idiazabal kalean negozioa ireki duen Onintza Alkorta osteopata-fisioari elkarrizketa / 2

Santa Krutz eguna Azkorten, maiatzaren 3an. Bigarren hitzordua, igandean / 3

### Amaiur! Libera State

Komiki-liburuaren aurkezpen ekitaldia  
Asisko Urmenetaren eskutik

Maiatzak 18, osteguna  
19:00 Andoain  
Peña Santa Krutz elkarte

Antolatzaile



Laguntzaile



# “Zerbitzu pertsonala topatuko dute herritarrek Onintza zentroan”

**ONINTZA ALKORTA AGIRREGABIRIA** “ONINTZA” FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

Gorputzari ikuspegi zabalarekin erreparatzen dio. Hamarkada oso bateko eskarmentuarekin iritsi da Urnietara, fisioterapeuta nahiz osteopata

**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

**Orain hiruzpalau aste ireki zituen Onintza fisioterapia eta osteopatia zentroak. Zer moduzko harrera izan du herrian?**

Berria naiz Urnietan eta uste baino erantzun hobea izan dut herrian. Eskerrak eman nahi dizkiet herritarrei, harrera ederra egin didatelako, baita alboan lan egiten duen Rebeca estetizistari ere, laguntzagatik. Badirudi, jendeak interesa duela. Batez ere, hemengo jendea dator, eta, zehatzak izateko, gehienbat, Etxeberri plaza ingurukoa. Bestalde, aurretik izan ditudan pazienteren bat edo beste ere badator hona.

**Nola iritsi zara Urnietara?**

Astigarragakoa naiz sortzez eta Lasarten bizi naiz. Azken hori herri handia da eta ez nuen lan egin nahi neure bizitokian. Horrez gain, sei bat kontsulta daude eta egoera berbera errepikatzen da Astigarragan, egun, sei zentro daudelako bertan ere. Bide horretatik, pixkanaka, hazten ari den herria da Urnieta eta toki aproposa iruditu zitzaidan.

Urte askotako hausnarketa prozesu baten ondorio izan da zentroaren irekiera. Hamar urte daramatzat lanean eta, jada, neure modura egin nahi ditut gauzak. Behin erabakia hartuta, bi hilabeteko kontua izan da zentroa irekitzea.

**Osteopata nahiz fisioterapeuta zara zu. Bi diziplinak uztartuta lan egitea al duzu gustuko?**

Errezeta mediko baten menpe lan egiten erakusten digute fisioterapeutoi unibertsitatean. Baina bestelakoa da errealitatea: kontsulta pribatuan egiten duzu lan askotan eta medikuaren errezetarik jaso gabe. Hortaz, abaniko zabal behar duzu pazientearen egoeraren gaineko irakurketa egiteko.



Onintza Alkorta, Idiazabal kalean duen negozioan. AIURRI

Hori horrela, bost urteko osteopatia ikasketak egiten dituzte fisioterapeuta nahiz osasunlangile askok. Horrela, balorazioa nahiz tratamendua kalitate handiagoarekin egiteko aukera daukagu. Pazientearen irudi orokorra edukitzea da gakoa.

Oro har, gorputz osoa tratatzen dut, baina bruxismo arazoetan sakonago egin izan dut lan, masailezurereko arazoekin, alegia. **K-Stretcharen bidez ere lantzen duzu gorputza.**

Kate muskularraren luzaketak dira, egurrezko hamaka batean, mugikortasuna irabazteko nahiz gorputzeko jarrera zuzentzeko. Apur bat sufritu ere egiten da, lanketa dakarrelako gorputz-jarrerak zuzentzeak. Dena dela, oso emaitza onak ditu.

**Zein zerbitzuekin egingo du topo hona gerturatzen denak?**

Zerbitzu pertsonal batekin egingo dute topo herritarrek, izan ere, bakoitzaren osasun-egoera aztertzen dut, arazoaren muina, oraingoz, eskuzko tratamendua bidez.

**Gaur egun, gehienbat, zer dela eta jotzen du jendeak zuregana?**

Egungo bizi-erritmo azkarrak estres handia eragiten du eta horri estuki lotuta daude lepoko, bizkarreko eta gerriko minak. Bestalde, bihurritutako orkatilak ere dezente etortzen dira.

**Zenbateko kostua dute saioek?**

Ordubeteko saioak izaten dira. Fitxa ireki beharra dago, lehenik, eta, ondoren, balorazioa eta tratamendua egiten ditut. 45 euroko kostua du saio bakoitzak, eta, oraingoz, ez daukat bonurik. K-Stretcheko saioei begira, lau saioko bonuak sortu ditut, denbora tarte bat eskatzen duen lanketa baita, prozesuaren onurak nabari ahal izateko.

**Interesa duenak nola jarri behar du zurekin harremanetan?**

943 96 65 43 edota 613 88 69 77 telefono zenbakietara deituta, baita whatsapp mezu bat idatzita ere. Bestela, onintza\_osteofisio@hotmail.com e-postara ere idatzi daiteke, edota zentrotik pasa, aurrez aurre hitz egin dezagun!

## POSTONTZIA

GOIBURUKO XOXOKAKO AUZO ELKARTEA URNIETA

### Goiburuko gune estalia hurrengo agintaldiko proiektuetako bat izan dadin

Goiburuko plaza eskas gelditzen da hainbat ekitaldi egin behar direnean, euri egunetan ezinezkoa eta edozein aste bukaeretan ere bai, aparkaleku bihurtzen delako.

Egia da urteko festa garaietan erabiltzen dela, batez ere, beste gauzen artean estalpe gunerik ez daukagulako. Gure ustez estalpea frontoi estali bat izan liteke, pilota leku izatetik harago, erabilpen anitzetarako instalakuntza izango litzatekeena.

Goiburuko auzoan hainbat ekimen eta jardura ekonomiko ere ematen dira, hala nola, baserrigintza, artzaintza, landetxe, ostalaritza, golfa eta abar. Ekipamendua osagarria izango litzateke, hainbat ekimen aurrera eraman ahal izateko, izan auzokoak zein herrikoak.

Eskaera: Hauteskundeetara aurkezten diren alderdi politiko guztiei eskatzen diegu, euren programen barruan Goiburuko gune estalia jartzeko proiektua gehi dezatela; eta konpromisoa har dezatela agintaldi honetan zehar ekipamendu hau egikaritzeko, horretarako Urnietaz gain dauden instituzioekin elkarlana (Foru Aldundia, Udala, Behemendi) bultzatuz.



UDALA

## Antia, aurtengo saridunak

Haur, gazte eta helduen mailako sariak banatu zituzten, Saroben. On Manuel Antonio Antia literatur lehiaketaren XXIX edizioa izan da. Luis Mitxelena aurkeztu zuen, eta Olatz Salvador aritu zen kantari.

### Haurrak

- Maddi Marigil Carracedo: “Etxe sorgindua”.
- Unax Hidalgo Peña: “Urkoren gabon harrigarriak”.
- Izaro Arrieta Etxeberria: “Bi bikiak”.

### Gazteak

- Nahia Benitez Roman: “Piztiaren bihotza”.
- Maialen Sanchez Lucio: “Nire errua izan ote zen?”.
- Aitor Estanga Lopez: “Ikusten zaitut”.

### Helduak

- Naiara Zubimendi Zubillaga: “Gabardinadun funanbulista”.
- Iñigo Legorburu Arregi: “Gutun mutuak”.

www.aiurri.eus

**AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



- Iritzia
- Postontzia



Larrañaga eta Ansorregi, Azkorte ermitaren kanpoaldean. AIURRI



Dantzariak mezaren osteko erromerian. AIURRI



Meza eta gero, ermitaren kanpoaldean egoteko giro ederra zegoen. AIURRI

# Santa Krutz eguna, Azkorten

Urteko sasoi honetan elorri zuria loretan izaten da, eta Azkorterera zuhaitz honen adar bat eramaten dute mezetan bedeinkatzeko. Santa Krutz egunean Azkorteko ermitan urtero berritzen den ohituretako bat da elorria bedeinkatzearena

## Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Erromeria izan zen joan den asteazken goizean Azkorte ermitan, Santa Krutz egunean. Ohiturak aginduta, goizean goiz, meza nagusia izan zen baselizan, eta, jarraian, eguraldia lagun, trikixa zein panderoaren doinuez gozatzeko aukera izan zuten Urnieta nahiz inguruko herrietatik bertaratutakoek, Jon Ansorregiren eta Anjel Larrañagaren eskutik.

Jarraian, bertsotan aritu ziren, librean nahiz puntuka. Azkorten hutsik egiten ez duen bertsolaria da Larrañaga. Aurtengoan, Aratz Igartzabal izan zuen bertso-kide. Honatx horietako batzuk:

## Aratz Igartzabal

Asteazken zehar festa giroa ez da izaten askotan ta hartarako ahalegintxo bat egin nahi degu gain hontan ardo trago bat eta pintxo hartu degu barra hortan eztarria prest jarri degu ta hasi gaitezen bertsotan

## Anjel Larrañaga

Arrazoi dezu traguarekin moldatu gera horrela orain ahal bada eman nahi degu punta-puntako nibela egualdiyare ederra dago ezin zitekeen bestela penagarriya festa egiteko gazteak falta direla

Borobil joan zen eguna, eta bide beretik joatea espero dute antolatzaileek maiatzaren 7ko hitzordua. Gainera, aurten 50 urte betetzen ditu Azkorteko ermitak, 1973. urteko maiatzaren 3an eraiki baitzen, harrobi bat ustiatu ondoren eraitsitako antzinako ermita homonimoaren ordezkotza gisa. Hori horrela, datorren igande honetan zer ospatua izango da ermitan: 11:00etako mezak emango dio irekiera egitarauari. Ondoren, 12:00tan, herri-kirolen txanda izango da eta erromeria doinuek emango diote jarraipena eguerdiari. Bien bitartean, salda, txorizoa, odolkia eta edaria egongo da tabernan.



Santa Krutz egunean Azkorteko ermitan urtero berritzen den ohituretako bat da elorria bedeinkatzearena. AIURRI



Egafiak eta Jauregik Azkorteko ermitako elizkizunean saioa eskaintzen dute. AIURRI



Txanpaina jaien hasierako ekitaldian. AIURRI

# Ondo hasitakoa bikain amaitu da

Auzo herria da Andoain, eta gizarte bizitzan auzo horietako jai batzordeek betetzen duten papera garrantzia handikoa da. Badira estu dabiltzanak, eta jaiaren hasierako txupinazoa auzoetako jai guztiak aldarrikatzeko baliagarria izan zen

## Erredakzioa ANDOAIN

Auzo herria da Andoain, eta gizarte bizitzan auzo horietako jai batzordeek betetzen duten papera garrantzia handikoa da. Badira estu dabiltzanak, aurtengo antolaketa kili-kolo baitago Karrikan edota Buruntzan. "Karrikako festak galtzen utziko dugu?", "Sorabillako festak galtzea nahi dugu?", "Buruntzako jaiak galtzen utziko dugu?" bota zuten Zubiaurre etxetik. "Ez!", erantzuten zuen jendetzak. Jaiaren hasierako txupinazoa auzoetako jai guztiak aldarrikatzeko baliagarria izan zen: "San Juan jaietz gain, Andoaingo zazpi auzoetako jaiak aipatu behar ditugu. Zazpi auzo, zazpi data, zazpi aukera ondo pasatzeko".

Bizikidetasun ariketa bikaina eskaini zuten jaien hasierako protagonistek. Harmonia ederra erakutsi zuten, eta giro on hori aurtengoan ere Santa Krutz jaietara zabaldu da. Bigarren urtez jarraian, jaiak parte hartzaileak eta aparteko liskarrik edo arazorik gabekoa izan da. Erasorik eta liskarrik gabeko sei egun izan dira, eta hori albiste pozgarria da.

Ondo hasitakoak amaiera ona izan du. Parrandazaleek hiru gautan gozatzeko aukera izan dute, gainera. Ostirala, lehena zelako; larunbata, gautxorien argazkira iristea lorgarria zelako; eta igandea, astelehena jai eguna zelako. Goizean goiz jai-ki eta kalea jaisteko ohitura duenak gautxoriekin topo egin zuten, aurreko asteburuan. Eta,

dena esatera, kalera jaitsi gabe ere nabarmendu ziren kalez kale eraman baitzuten musika aparailua eta bozgoragailua.

Festarako aukera izan da, eta ia euririk gabeko egunak lagungarri izan dira koadrilen arteko bazkaria Bekoplazan egin ahal izateko. Bospasei urte dira irudi hori ikusten ez zela. Bekoplaza jendez lepo ikustea, Santa Krutzetan bakarrik gertatzen den egoera izaten da.

**Jaien egutegia martxan jarri da** Santakrutzak amaitu eta martxan jarri da Andoaingo jaien egutegia. Sanjuanak ospatzeko geroz eta gutxiago falta da. Kaletxikiko jaiak astebete atzeratuko dira, Frantziako tourra dela medio. Uztailean jarraituz, ea azkenean Karrikako jaiak eusten dieten. Eta, ondoren, oporraldi garaian datoz Etxeberrietako Saninazioak, Goiburuko Sanestebanak eta Buruntzako jaiak, San Roke egunean. Gauzak ondo, Sorabillan ere jaiak izango da Arantzazuko Amaren egunaren bueltan.

Herri baten izaera, neurri handi batean, bizilagunen harmonian datza. "Herri baten ondasunik handiena herritarrek gara. Jarrai dezagun herri biziago baten alde guztiok, elkarlanean". Bete dadin, beraz, Zubiaurre etxetik botatako desioa. Herri biziagoa egitea guztion ardura delako. Bizilagunena, eta auzoetako jai batzordeena. Esku bat botatzea, antolaketan laguntzea eskertuko dute gehien-gehienek.

## PROTAGONISTAK



Auzoetako jai batzordeen eskutik iritsi zen aurtengo pregoia. AIURRI



Santa Krutz jaien hasierako kontzertuan parte hartu zuten eragileak, taldeko argazkian. AIURRI



Antolatzaileak eta partaideak elkarrekin, aurtengo jaietan. AIURRI




Leire Otermin izan zen irabazlea. AIURRI



Marta Oteiza. AIURRI



Ane Otamendi. AIURRI




Izaro Mikelarena. AIURRI

# Harri ttiki, festa handi



Iñaki Alzuguren nagusitu zen. AIURRI



Eñaut Etxeberria. AIURRI



Ander Olasagasti. AIURRI



Ekain Bellanco. AIURRI



Peio Manterola. AIURRI



Zumeatarra elkarteko kideak Santa Krutz elizaren barrualdean eskainitako saio txoan. AIURRI



Lebiton konpartsa, dultzaineroekin batera, Bastero plazan. AIURRI



Elektropottotte taldeko kideek musikazaleak eta festazaleak elkartu zituzten. AIURRI

# Parte-hartze handia, jaietan

Larunbatean, egun osoan zehar, jendetza ibili zen jai eremuko kaleetan. Bereziki aipagarriak izan ziren auzo bazkaria eta elektrotxarangaren emanaldia. Jai egunez bizitzeko gogo berezia dagoela argi geratu zen

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Aurrekontu handiak ez du zertan arrakasta ziurtatzen. Lagun-garria izan daiteke ospe handiko taldeak erakartzeko garaian, eta herriak ingurukoen aurrean dir-dir egin dezan. Santakruzak auzoan, bertakoan oinarritzen dira. Aurtengoan, bederen, herriko musika proposamenek arrakasta itzela izan dute. Larunbat arratsaldean, Elektropottotte taldeak jendetza eraman zuten Txosnagunetik Kale Nagusira, eta handik Juanita Alkain

plazaxora eta Espigoira. Ez zen, ez, ikusmina soilik. Bertaratu zirenak abesteko eta dantzatzeko gogoz zeuden. Eta gauza bera esan daiteke igande iluntzeko ekitaldiaz. Malkogarriryak taldearen emanaldiak aurrikuspen guztiak hautsi eta Zumea plazako karpa eta inguruak festazalez bete zuen. Saltoa, kantuan eta dantzan jarri zuten jendetza. Auzoan, bertakoen parte hartzearekin, gauza handiak egin daitezke. Ahaztu behar ez den aldagaia da hori.

## PROTAGONISTAK



Auzo bazkariko kideek karpa bete zuten. AIURRI



Erreka jaitsierako partaideak, abiatu aurretik. AIURRI



Lehiaketaren ostean ikusleek bakailaoaz gozatzeko aukera dute. AIURRI

# Maila handiko sukaldaritza



Zumeatarra, irabazleak: Lamber Otermin eta Joxe Mari Conde. AIURRI



Batzokia: Iñaki Irulegi eta Antonio Guedejo. AIURRI



Irunberri: Mirari Miner eta Imanol Miner. AIURRI



Kotoi: Nika Murillo eta Luisa Aguado. AIURRI



Ontza: Jose Luis Makazaga eta Mikel Irigoras. AIURRI



Andoaindarra: Dani Gomez eta Ivan Gonzalez. AIURRI



Peña Santa Krutz: Iban Granado eta Julio Salome. AIURRI



Hogar Extremeño: Miguel Angel Martinez eta Antonio Girol. AIURRI



Karrika: Javi Melon eta Suso Martin. AIURRI



Eneko Martiarenaren omenezko txapelketa ostean sari banaketa-ekitaldia egin zuten Juanita Alkainen. MENDICUTE



Peña Santa Krutz elkarteko danborradan adin guztietako partaideak elkartu ziren. AIURRI



Gaztañaga, Azpiroz antolatzailea, Aburuza, Lizeaga eta Santa Cruz antolatzailea, sari banaketa ekitaldian. SALBADOR



Ehunka talo eskaini zituzten, eguerdian hasi eta iluntzera bitarte. AIURRI

# Jaia, janaren eta edanaren bueltan

Sagardo ugari edan zen, eta baita ehunka talo jan ere. Igande arratsaldean Zumea plaza gutxitan bezala bete zen. Sagardo lehiaketaren emaitza, epaimahaikideen botoak jasota: 1. Aburuza: 130 puntu; 2. Lizeaga: 128,5 puntu; 3. Gaztañaga: 127,5; 4. Petritegi 126,5



Bermuth saioan lan eta lan aritu ziren batzordeko kideak eta DJ Ezekiel. AIURRI

## PROTAGONISTAK



Gora Kaletxiki txarangak alaitu zuen igande goiza. Dozenaka lagun elkartu zen Espigoian, egitarauan errotuz doan gautxorien argazkia ateratzeko. AIURRI





Arruti, Beloki, Arruti eta Oiartzun, taula gainean. AIURRI

## Jendetza elkartu zuen Malkogarriyak taldeak

Arratsaldean hasi eta eguna ilundu ahala, ikuslegoa batuz joan zen Zumea plazan. Plaza doinuen erritorea dantzan jarri zuten ikuslegoa, jaiotako irudirik indartsuenetarikoa eskainiz. Kontzertua Bekoplazan izango balitz, txikia geratuko litzateke.

Urteak dira Ion Beloki eta Antton Beloki Ingoaldeu taldea sortu zutela. Lagun berriekin abentura berria martxan jarri zuten, Malkogarriyak izeneko. Aurreko igandean Aitor Arruti eta James Oiartzun izan zituzten taldekide, eta lauren artean Andoain dantzan jarri zuten.



Lebi, Langara zubian. AIURRI

## Zezen suzkoaren xarma

Lebiton konpartsak haur eta guraso gehienek bereganatu zuten, igande gauetz. Ekitaldia hasteko minutu gutxiren faltan jendetza elkartu zen Maindi iturriaren eta Zubiaurre etxearen artean. Bertan ziren oihuen artean, kalean gora eta behera ibili zen Lebi zezen-suzkoa. Sanjuanetan kalez kale ikusiko dugu, berriro.

## DJ Ezekiel, bertatik bertara

Ibilbide polita osatzen ari da Aritz Gorriti musika jartzailea. Vermouth jaia egin da, lehen aldiz, aurtengoan. Eta hitzordua gozatzeaz arduratu zen auzoan bertan bizi den musikazalea. Kanpoko eta bertako musika dantzagarrira uztartuz aritu zen. Espigoia oso toki aproposa da horrelako ekimenak aurrera eramateko.



Aritz Agirre da DJ Ezekiel. AIURRI



Gurutze Gorrikoak, adi-adi, Zumea kalean. AIURRI



Udal Musika Eskolako Bandak 80. hamarkadako doinuak eskaini zituen. Bideo-sorta Aurrerri.eus gunean. AIURRI



Urki dantza taldeko gaztetxoek emanaldi eskaini zuten, igande goizean. AIURRI



Sailkapen nagusia. Emakumezkoetan: 1. Maria Navascues (38:53); 2. Lourdes Colomo (39:52); 3. Maialen Gurrutxaga (40:10). Gizonezkoetan, berriz: 1. Xabi Martinez (31:42); 2. Imanol Rojo (32:03); 3. Mustapha Archaqui (32:10). Andoaindarrak: 1. Almudena Carvajal (45:25); 2. Nekane Minguez (47:22); 3. Ainara Leibar (47:46). Gizonezkoetan: 1. Garikoitz Alberro (35:15); 2. Edu Portillo 35:53; 3. Unai Barrio (36:54). AIURRI



Sarasola erbi lanetan, 4:30 minutu/kilometroko erritmoan. AIURRI



# Maiatzaren 1ean, herri krosa

Zumeatarra elkarteak lasterketen egutegian klasiko bilakatu den probaren edizio berria antolatu zuen. Euria ari zuen goizean, baina horrek ez zituen korrikalariak atzera bota. Are gehiago, bat baino gehiagok egunean bertan eman zuten izena.

## PROTAGONISTAK



Fit Gypsy Dance emanaldia Zumea plazan, astelehen arratsaldean. AIURRI



Txorotxaragang Zumea plazan batu zituen haurrak Juanita Alkain plazaraino eraman zituen. AIURRI



Antolatzaileak eta lasterketa bikaina egin zuten partaide gazteak, elkarrekin. AIURRI



Haur lasterketa helduena amaitu orduko abiatu zen. Mailaka abiatuta, dozenaka gaztetxok parte hartu zuen. AIURRI



Jauregi eta Sanchez dira Herri Danborrako zuzendari berriak. Haiekin batera orain arte ardura horietan ibili diren Elizondo, Oiartzun eta Mujika. Herri Danborrada abiatu aurretik egin zuten ardura aldaketa. AIURRI



Bekoplazan saioa eskaini eta gero, Kaleberrirantz abiatu zen Herri Danborrada. AIURRI



Eguzkipean jendetza elkartu zen, Bekoplazan. AIURRI



# Kuadrillena, egun handia

Gazteak, bereziki gazteak, eta hainbat familia elkartu zen Bekoplazan, astearte eguerdian. Egun osoko ospakizunean guztiak batera egoteko unea izan zen. Lehenago, kuadrillen arteko jolasetan eta, ondoren, DJ Bullen saioan jendetza elkartu zen





Urki dantza taldeko kideak, Udal Korporazioa Zubiaurre etxe parera iritsi zenean. AIURRI



Txakolin dastaketan lanean aritu ziren auzotarrak. AIURRI



Eskopeteroak eta txistulariak, Goikoplazan. AIURRI

# Santa Krutz egun beroa

Ikurrinaren jaitsiera, eskopeteroen irteera, dantzarien emanaldia, txakoli dastaketa... eguraldi beroko Santa Krutz egunaren lehen hitzorduak izan ziren. Jaiak hasi bezalaxe amaitu baitira aurtengoak, parte-hartze handiarekin



Eskopetariak Andoainen egun bakarlean ikus daitezke. Santa Krutz egunean, zehazki. AIURRI



Urki dantza taldeko kideak, Espigoian. AIURRI



Udal Korporazioa, jaitsierari hasiera eman aurretik. AIURRI

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 4

## ANDOAIN Erakusketa

Euskaldunaren mendeurreneko erakusketaren irekiera ekitaldia. Maiatzaren 20ra arte zabalik. 18:30, Bastero, erakusketa aretoa.

## ANDOAIN Deialdia

2022-2023 ikasturtean euskara ikasteko dirulaguntza deialdia. Informazio osoa: andoainarraeuskaraz.eus. Azken eguna: Ekainak 16.

## URNIETA Deialdia

Eguzkitan Blai! eta Kirol Udalekuetan izena-emateko epea zabalik, Bertan-en eta Lekaion. Azken eguna: Maiatzak 5.

## OSTIRALA 5

## ANDOAIN Gure Zirkua

Sarrerak salgai Gurezirkua.eus webgunean. Maiatzak 5-13, Etxeberrieta.

## LARUNBATA 6

## ANDOAIN Ekitaldi nagusia

Euskaldunaren mendeurreneko ekitaldia. Aurretik eskulturaren irekiera-ekitaldia. 11:30, Ubitarte zelaia. 12:00, Bastero.

## TOLOSA Manifestazioa

"Tolosaldeko osasungintza larrialdian, irtenbidea orain". 12:30, Trianguloa.

## Emakumeen\* Etxea aldarrikatzeko hitzordua, Andoainen

Andoaingo Emakume\* Feministak mugimenduak ostiral hone tarako agerraldia deitu du, Gokoplazan. 19:00tan izango da. Emakume libreen, arrazakeriaren aurkako, pluralen, feministen, laikoaren eta aktiboaren lekua izan behar duela defendatuko dute. Gunearen diseinua eta antolaketa parte hartze prozesuaren ondorioz aldarrikatuko dute.



"Bidea da borroka" liburuaren egileak dira Beñat eta Unai anaiak. WIKIPEDIA

## URNIETA Gaztelumendi anaiei komiki-liburuaren aurkezpena

"Bidea da Borroka" komiki-liburuaren aurkezpena egingo dute Beñat eta Unai Gaztelumendi anaiek. Zuzeneko marrazkiez eta bertsoez gozatzeko aukera izango dute ikusleek. Ekimen betean dira goiburuarak. Maiatzaren 26rako, esaterako, merienda eta Potx magoaren saioa antolatu dute. Maiatzak 5, ostirala. 19:00. Xoxokako eskola.

## IGANDEA 7

## ANDOAIN Dantza

LaMov konpainiak Tempus fugit ikuskizuna eskainiko du. Dantza garaikidea, berritzailea. 19:30, Bastero.

## OSTEGUNA 11

## ANDOAIN Dokumentala

Elbira Zipitria hezitzaile eta euskaltzalearen dokumentala. 20:00, Bastero.

## OSTIRALA 12

## ANDOAIN Kontzertua

"A Capella", Demode Quartet. 20:00, Bastero.

## LARUNBATA 13

## ANDOAIN Ospakizuna

Euskaldunaren mendeurrenekoan nesken partida eta bazkaria. 12:00, Bastero. Ekitaldia. 12:30, Ubitarte. Partida. 14:00, Aita Larramendi. Bazkaria.



## ZINEMA



## ANDOAIN

## BASTERO

Un paseo con Madeleine  
Lar, 6. 19:30, 22:00.  
Asti, 8. 19:30, 22:00.

## Elbira

Osteg, 11. 22:00.  
La quietud en la tormenta  
Ig., 14. 19:30.  
Asti, 15. 19:30, 22:00.  
Mavka  
Ig., 14. 17:00.



## SINOPSIS

## Un paseo con Madeleine

Zuzendaria: Christian Carion. Aktoreak: Line Renaud, Dany Boon, Alice Isaaz, Jeremie Laheurte, Julie Delarme, Gwendoline Hamon, Thomas Alden, Elie Kaempfen, Jacques Courtes, Romy Milletti, Hadriel Roure. Herrialdea: Frantzia (2022). Hizkuntza: Gaztelania. Generoa: Drama, zahartzarua, bidaia. Iraupena: 91 min.

## Barne bidaia, iraganera

Madeleinek bere etxea utzi eta Pariseko beste puntan dagoen zahar-etxe batean sartu behar du, medikuen aginduz. Taxista bat bere bila dator eta bere bizitzan eragina izan

duten hiriburuko hainbat tokitatik igaroko da. Iraganera egindako bidaia da. Hunkitzen duen film horietakoa da, umorea alde atera utzi gabe.

## Emanaldietarako prest dira

Gure Zirkua muntaia Santa Krutz jaiak ospatzen ari ziren bitartean egin zuten. Egunotan azken ukituak ematen ari dira, eta datozen bi asteburuetan hainbat saio eskainiko dituzte. Salmenta azkar batean doa eta hainbat saiotarako sarrerak dagoeneko agortu dira. Gurezirkua.eus -en aurki daiteke informazioa, baita sarrerak erosteko esteka ere.



AIURRI



## Burujabetza Andoain, Udal hauteskundeetatik kanpo

Maiatzaren 2an hauteskunde-batzordeak behin betiko zerrendak argitaratu zituen, eta bertan argitaratu zuten Burujabetza-Andoain hautes-zerrenda balio-

rik gabe geratu zen. Sinadurak biltzen ibili ziren, herrian. Baina prozedura kontuak tarteko, ezingo dute maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan lehiatu. Gauzak horrela, bost aukera izango dira Andoainen: EH Bildu, PSE-EE, EAJ-PNV, Elkarrekin Podemos eta PP.

## POSTONTZIA

LAIDA AGIRRE ZIPITRIA ETA ITZEA URKIZU ARSUAGA

## “Ez geratu haurdun Tolosaldean”

Eusko Jaurlaritzak hilabeteen 200 euroko diru-laguntza emango badizu ere, ez zaitez haurdun geratu Tolosaldean. Zure haurrarentzako bizitoki bikain, berde eta pribilegiatua izan badaiteke ere, ez zaitez haurdun geratu Tolosaldean. Nahi izanda ere ez zaitez geratu, ez baduzu haurdunaldian zehar konturatu nahi, EAeko gainerako herritarren azpitik zaudela, munduko txoko honetan jaio edo bizitze hutsagatik.

Test positibo bat, lehen botagurak eta emagin eta ginekologoarekin izan beharreko hitzordu-zerrenda luzea. Haurdunaldiaren jarraipenak bai baititu zenbait mugarri, zeinetan sabelean daramazun haurraren egoera behar bezala aztertzea ezinbestekoa den, aurrera begira. Une horietako bat da 20. asteko ekografia: haurdunaldia lan-erditan dela, haurraren anatomiak izan litzakeen alterazioak eta haren organoak xehetasunez behatzen ditu profesionalak, sor litezkeen arazoak aurreikusteko edo dena behar bezala doala berresteko.

Bada, haurdun zauden edo egoteko asmoa duzun Tolosaldeko emakume\* hori: presta zaitez zure haurdunaldiko inflexio-puntu garrantzitsu hori erdizka artatua, aztertua eta behatua izan dadin, EAeko gainerako haurdunei sabelean daramaten izakitzoa behar bezala aztertuko dieten bitartean. Zergatik? Gure ESIaren antolaketak hala eskatuta, behartuta gaudelako, lehen ekografia izan ezik, gainerako guztiak Asuncion klinika pribatuak Belaten duen zentroan egitera, eta une honetan zentro horretan ekografiak egiten ari den profesionalak ekografoan aritzeko homologaziorik ez duelako.

Okerrena da haurdun eta otzan espero gaituztela. Hitzordu-zerrenda eta aldaketa-saldo horren erdian ez dugula tarterik hartuko, sasi-herritar bagina bezala artatuak izaten ari garela salatzen. Bada, azken hilabeteotan haurdun egon garen eta gauden emakume asko gutun bidez jarri gara harremanetan, bai Tolosaldeko ESiko gerentziarekin, bai Osasun Sailaren delegaritzarekin: egoera azaldu eta gaitzetsi dugu gutun horietan, eta bigarren profesional baten iritzia jasotzeko aukera eskatu, lehen ekografia egin ohi dugun zentroan, Groseko anbulatorioan

Burokraziaren bideak luzeak eta bihurriak izan ohi dira, ordea, hala komeni denean, eta ia kasu gehienetan berandu eta ezezkoarekin iritsi dira erantzunak. Ez dute haurdunen iraultzatxori nahi, antza, baina jai daukate. Gure haurdunaldiak gainerako eskualdeetako haurdunenak bezala artatuak izatea lortzen ez badugu, balio beza honek, atzetik etorriko diren guztientzat.

Argi dugu hau harri-kozkor bat gehiago besterik ez dela, eskualde honetan milaka herritar eta TOPA urtetan eta urtetan kemenez urratzen ari diren bidean. Zor publikoa duen klinika pribatua, homologaziorik gabeko medikuak lanean, lan-baldintza negargarriak profesionalentzat... Osasunak bizitza zeharkatzen digu, eta osasuna oraindik munduratzeko dauden bizitzetaraino ere iristen da; ez dugu hori defendatzea beste aukerarik. Ez gara bigarren mailako haurdunak!

## Kontzejupeko pala-txapelketa Urnietan, Poxta Zaharren eskutik

Binakako txapelketa da. Astearte, ostegun eta ostiraletan, 18:00tan hasita. Finala Gazte Festetan jokatu da. Adin ezberdinetako bikoteak osatu behar ziren.

## Muruamendiarazi saria

Gipuzkoako Dantza Profesionalen Elkartearen saria eskuratu du Edu Muruamendiarazek, urte hauetan guztietan oholztan zein bertatik kanpo egindako lan guztiarengatik. Izan ere ibilbide oparoa osatu du Aukeran-ekin. Maiatzaren 7an, igandearrekin, egingo da sari-banaketa ekitaldia, Donostiako Victoria Eugenia antzokian.



GOIENA

## Sanmieletako kartel-lehiaketa

Lanak ekainaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira. DIN A3 tamainan, eta digitalean 300 ppi-ko bereizmenean. Kartelak “URNIETA, 2023ko SANMIELAK” goiburua eraman beharko du. Kartel irabazlea Jai Batzordean hautatuko da eta irabazleak 500 euroko saria eramango du. Bertan bulegoetan informazio guztia.



UDALA

## Lepauztaia hautsi zuen

Aurreko ostiralean, Asturiasko Itzulian, lepauztaia hautsi zuen Mikel Iturria urnietarrak. Halaber, geratu beharko du Euskaltel Euskadiko txirrindulariak. Afrika aldean oso gustura aritu zen, eta Asturiasen erorikoa izan zuen. Osatzen denean txirrindularitzaz gozaten jarraitu ahal izango du.



EUSKALTEL

## Andoaingo Udal Musika eskolan, matrikulazioa zabalik

2023/2024 ikasturtera begira, zabalik da maiatzaren 12ra bitarte. Informazioa Basteron: 943 303 540. Orduetgia: 10:30-13:00 / 16:30-19:30.

## ZORION-AGURRAK



ANDOAIN  
**Victor eta Martina**  
Zorionak Victor eta Martina zuen familia eta lagunentz partez zuen urrezko ezteingatik. Ospakizun ederra!



URNIETA  
**Paul eta aitona Angel**  
Maiatzaren 7an Paulek urteak beteko ditu eta maiatzaren 14an, aitona Angelek. ZORIONAK bioi eta urte askotarako! Besarkada goxo bat, etxekoentz partez!



ANDOAIN  
**Leire Rekalde**  
Maiatzaren 6an 34 urte. Zorionak! segi horrela, irribarretsu, beti bezala. Muxu handi bat etxekoentz partetik eta pozik bizi!

## Zorion agurrak Aiurri

- [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus).
- [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus).
- Arantzibia 4-5, behea.
- 619 163 537 (whatsapp bidez).

## ODOL-EMAILEAK

### HURRENGO HITZORDUAK

#### Maiatzak 8, astelehena.

16:30-20:30. ANDOAIN, Anbulatorioa. 943 007 884.

#### Maiatzak 22, astelehena.

16:30-20:30. URNIETA, Gaztelekuan. 943 007 884.

w w w . a i u r r i . e u s



ITALIAKO GIROA  
Andoni Urbistondoren eskutik



Jendetza elkartu zen Ubitarte zelaian. AIURRI



Jon Fernandez eta Santi Bakero, iragan oparoa izan zuten bi jokalaria. AIURRI



Urtzi Azpiroz baloiaz jabetu nahian. AIURRI



Emilio Lekuona bazkide zaharrenak egin zuen ohorezko sakea. AIURRI

# Ubitarte zelaian primerako giroa

Ektialdiz beteriko ikasturtea izaten ari da Andoainen, Euskaldunaren mendeurrena tarteko. Aurreko asteburuan, Ubitarte zelaian, garai bateko Real Sociedad eta Euskalduna taldeetako jokalaria elkartu ziren

**Erredakzioa** ANDOAIN  
Santa Krutz jaietako egitarauan, ez ohiko ekitaldia iragarrita zegoen. Larunbat eguerdian jendetza elkartu zen Ubitarten, Real Sociedad eta Euskalduna taldeen arteko partida ikusteko.

Urdiñek behintzat oso serio hartu zuten mendeurrenako antolatzaileen gonbitea, aste luzez prestaketa ariketak egite aritu baitira. Gogorik eta ofiziorik ez dutela galdu argi geratu zen. Jokaldi eta geldialdi bikainak,

tarteko. Mendeurrenak aurrera darrai eta larunbat honetan es kulturaren irekiera ekitaldia egingo dute, eta ondoren ekitaldia Bastero Kulturgunean. Eta hilaren 13an, herri bazkaria Aita Larramendi ikastolan.

## SAGARDOAREN TXAPELKETA™ Orona

Maiatzak 8. Astelenehena 18:00etik aurrera. Galarreta jai alai (Hernani). Sarrera 6€.

**ALORRENEA** URRIZA MARTIRENA

GEIETZEA X TOYKA EZKURRA II ZUBIRI

**ALALUME ZAR** GOIKOETHEA V BARRENETHEA IV

*Retriategi* ALDABE AZPIROZ

ERREMONTARI